



RODOLFO BOZAS-URRUTIA, BERE BURUA ERRENTERRIAR SENTITZEN ZUEN GIZONA

J. SAN MARTIN

Ez zen erreteriarra Rodolfo Bozas-Urrutia, Donostian jaio zen 1913ko azaroaren 19an, Astigarragan igaro zituen haurtzaroko urteak, gaztetxo eraman zuen familiak Uruguay-ra, gero zenbait urte Buenos Aires-en. Espainiako gerran sentitu zuen Errepublikaren alderako deia eta boluntario etorri zen Katalunara. Geroztik, Barcelona eta Madrid-en igaro zituen bere bizitzako urterik gehienak. Bere bizitzako harat-honatko ibilerak mugarik gabeko unibertsal nortasuna markatu bazion ere, bere barnetik gogo-bihotzez inongoa sentitzen bazen euskaldun eta Erreteriko, aita erreteriarrek bere izakera hala markatu zionez.

Bere aita erreteriarra, Evaristo Bozas-Urrutia, *El Pais Vasco*-ren zuzendari izana eta Erreteriar buruz *Andanzas y mudanzas de mi pueblo* liburuaren egilea zen.

Rodolfok, Buenos Aires-en Filosofia eta Letren ikastaroak utzi eta musikari eman zion buru-belarri. Pianozko kontzertuak eman zituen Hego-Ameriketan eta Kataluñan, Canalda eta Agirresarobekin egin zituen kanta irakasketak eta bere bizitzako azken urteetan Madrid-eko Santa Maria de la Cabeza parrokiaren organista izan zen.

Kataluñako egotaldian eman zion euskara ikasteari, katalanek beren hizkuntzarekiko harrera exenplutzat harturik, eta gaztaroan galdu zuen euskara erreteriarrek. Horretarako euskaldun estudianteekeingo harremanez eta Zabala-Arana, Arriagaray, López-Mendizabal, Azkue eta Zamarriparen metodoz eta gramatikaz baliatu zen Barcelonan bertan, euskaraz mintzaten, irakurtzen eta idazten erraztasun guziarekin jabetu arte. Gainera han bertan euskaldun batekin ezkondu zen eta horrek ere lagundu zion euskaldun zenez jabetzeko.

Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais-ko *Boletin*-ean eta *Euskera* agerkarian zenbait lan idatzi zituen bibliografiak eta lexikografiak, eta anitz idazlan euskaraz *Egan*, *Jakin* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan. Batzuk berak sortuak eta beste batzuk itzuliak. Hauen artean, italiar notik: Boccaccio eta Guareschi; frantsesetik J. Vinson, J. Verne eta George Duhamel;

gazteleratik Muedra, A. Cuyás, bere aita Evaristo, I. Fagoaga, Pelay Orozko eta abar; katalanetik R. Lull.

Idazleaz gainera ikertzaile ere egin zuen, besteak beste, Materrek XVII. mendearen hasieran euskaraz idatzitako *Doctrina*-ren argitalpen ez ezagun bat aurkitu zuen Madrid-eko Biblioteka Nacional-ean.

Bere lanen merituegatik 1971an, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen.

Euskarazko lehen eleberria, J. B. Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* gaztelerara itzuli zuen, Julien Vinson-ek lan hortaz egin zuen estudioarekin batean, liburu gisa, 1970. urtean argitaratzeko. *Euskal Kirolak* deitu lan luze bat idatzi zuen *Lur eta gizon*. *Euskal Herria* (1974) zeritzan libururako. *Francisco Amoros y el antiguo juego de pelota* (1974), bi zatitan Bol. R.S.V.A.P.-ren.

1974ko urte hortan, urriaren 7an, Madrid-eko Ateneo-an Euskal Aula ideki zen eta bere arduradun Rodolfo Bozas-Urrutia izendatu zuten. Baina ordurako minbiziak joa zen.

Bere gaitzarekin jabeturik, lanak eskuartetik presaka ateratzeari eman zion. Bazekien urte gutiko bizitza zuela. Aspalditik eskuartean zeraman pilotaren historia burutzeari eman zion eta hala bukatu ere bi tomo handitan, Luis Bombin-en laguntzarekin, *El Gran Libro de la Pelota* (1976), erdaraz baina ordurarte inoiz ez bezala euskaraz gai hortaz ezagutzen ziren ageri, idazki eta bertsoz baliaturik.

Lan horrekin batean eroan zuen aurrera bere gogoan aspalditik zekarrena, aita Evaristok Erreteriar historiaz idatzi zuen *Andanzas y Mudanzas de mi pueblo* liburu atsegina euskara itzulita *Nere herriaren ibillaldiak eta gora-beherak* izenburuz, 1976an argitaratuko zen elebiduna, Rodolfok espreski egin zion hitzaurrez eta oharrez aberasturik.

Horrela bete zuen bere gogoz Erreteriarrentzat opa zuen lana.

Rodolfo Bozas-Urrutia, Madrid-en hil zen 1978.eko urtarilaren 12an. Bere oroitzapena bego erreteriarren artean.